




Urretxu eta Zumarragako Hizkuntza-Erabilera Kale-Neurketa, 2017

Eraitzen txostena

2018ko martxoa



1. Sarrera.....	2
2. Metodologia	3
3. Erabilera Urretxu-Zumarragan, 2017an: emaitza orokorra	14
4. Erabileraren bilakaera Urretxu-Zumarragan (2001-2017).....	21
5. Euskal Herriarekiko, Gipuzkoarekiko eta beste herriekiko alderaketa	25
6. Zonaldekako emaitzak.....	29
7. Hitzunen ezaugarrien araberako erabilera	31
8. Haurren presentziaren eragina erabileran.....	37
9. Datu nagusien laburpena	39



1. Sarrera

Euskararen egoera nolakoa den deskribatzeko garaian, askotan jotzen da iritzia ematera. Baina subjektibotasuna saihesteko, gero eta garrantzitsuagoa da egoeraren berri emango duten datuak esku artean izatea, balorazioek oinarri objektibo bat izan dezaten. Hala, datu horien bila ekin nahian, herriko euskararen presentzia nolakoa den adierazteko, funtsezkoa da kalean zenbat euskara erabiltzen den jakitea. Izan ere, soziolinguistika arloko eskarmentuak erakutsi du erabilera dela hizkuntza baten egoeraren adierazle esanguratsuen eta fidagarriena.

Hizkuntza erabiltzea gizakion jardun arrunt ohikoa da. Nonahi, noiznahi, baliatzen dugu hizkuntza. Giza izaeraren bereizgarria da. Baina, testuinguru eleaniztunetan, euskararen kasuan bezala, hizkuntza bat edo bestea erabiltzea ez da jarduera arautua edota patroijakinei obeditzen diena. Horrenbestez, hizkuntzen erabilera hori neurtzea ariketa konplexua da, eta metodologia findua eskatzen du. Helburu horri erantzuteko asmoz, sortu eta garatu dugu kaleko hizkuntza-erabilera neurtzeko metodologia.

Kale-erabileraren neurketaren metodologia horri esker, abantaila handiak lortzen dira herriko errealitatera hurbiltzeko, eta, beraz,

funtsezkoa bihurtzen da herri-mailan hizkuntza-errealitatea ezagutu edota planifikatu nahi duen edonorrentzat. Batetik, lehen aipatu moduan, objektibotasuna lortzen da herriko errealitate soziolinguistikoaz aritzeko garaian. Gainera, herriko hizkuntza-egoera ezagutzeko beste hainbat datu badaude ere (eroldako ezagutza-datuak, ikastetxe eta euskaltegi-tako matrikulazio-datuak...), datu horiek guztiak herriko kaleetan entzun daitekeen eguneroko jardunean nabarmentzen dira. Bestalde, ohikoa izaten da baliabide urriak edukitzea euskararen aldeko sustapen-planak egiterakoan eta horrek premiarik handiena duten eremuak zein diren jakitea eskatzen du lehentasunak ezartzeko.

Ondorioz, kaleko neurketen emaitzak beharrezkoak dira lehentasun horiek ezartzeko edota datu xeheagoak eskuratze aldera. Izan ere, hainbat erabilera-datu eskura daitezke neurketaren bidez, adin-talde bakoitzak kalean euskara zenbat erabiltzen duen, besteak beste. Era berean, neurketa horiek maiztasunez eginez gero, bilakaera ezagutu ahal izango da, eta, modu horretan, herrian izaten diren hizkuntza-aldaketak gertutik jarraitzeko aukera izango da.



2. Metodologia

2.1 Euskal Herriko hizkuntza-erabileraren kale-neurketaren metodologia


Urretxu-Zumarragan egindako kale-neurketaren metodologia Euskal Herriko Hizkuntzen Erabileraren Kale-Neurketan garaturikoan oinarritua dago.

Euskal Herriko Hizkuntzen Erabileraren Kale-Neurketa 1989. urtean egin zen lehen aldiz, eta geroztik sei alditan errepikatu da: 1993an, 1997an, 2001ean, 2006an, 2011n eta 2016. Dagoeneko, beraz, hogeita bost urteko esperientzia metatuta, metodologia aski frogatua eta kontrastatua dagoela esan daiteke. Gaur egun, euskararen egoera zertan den ezagutzeko ezinbesteko erreferentzia bilakatu dira datu horiek.

Kale-neurketan erabiltzen den teknika behaketa zuzena da; hau da, ezertxo ere galdetu gabe, neurtzaileek herriko kaleetan zehar topatzen duten jendeak darabilen hizkuntza jasotzen da. Hala, bere helburua praktikan hizkuntza bakoitza erabiltzearen ekintzak zenbateko maiztasun erreala duen kontrolatzea da. Izan ere, teknika honen abantaila azpimarragarrienetakoa neurtzaileek hiztunaren joera naturala jasotzen dutela litzateke datuen subjektibotasuna saihestuz eta emaitza fidagarriagoak lortuz.

Landa-lana

Landa-lana behar bezala egiteko, beharrezkoa da diseinu teknikoan bi ezaugarri zehaztea: ibilbidea eta neurraldiak. Alde batetik, beraz, herriko kalerik jendetsuenak biltzea irizpide nagusizat hartuz (plaza inguruak, parkeak, geltokiak, salerosketa kaleak, eta abar.) neurtu beharrezko kale horiek finkaturiko ibilbidea(k) definitzen d(ir)a. Bestalde, neurketarako egun eta orduak zehaztu behar dira, helburu nagusia herriko biztanle



guztia (potenzialki behintzat) neurtzea izanik. Nolabait ere, hautatutako egun eta orduetan herritar guztien hizkuntza-jardura estatistikoki neurtzeko aukera bildu nahi da neurraldien eta ibilbideen diseinuarekin.

Elkarrizketa-hizkuntza

Oinarrizko behaketa-unitatea taldeko elkarrizketa-hizkuntza da, ez dugu norbanakoaren hizkuntza neurtzen. Beraz, ezinbestean, bi lagun edo gehiagoren arteko elkarrizketak dira zenbatzen direnak. Dena den, bakarrizketa gisa jasotzen ditugu elkarrizketa-mota batzuk: adibidez, mugikorreko elkarrizketen kasua, non hiztun bakarraren informazioa jaso biltzen den elkarrizketa-datua. Bestalde, normalean soilik bat edo bi lagun entzuteko denbora izaten da, eta beraz, taldeko elkarrizketa-hizkuntza definitzerakoan, une horretan hizketan ari denaren hizkuntza hartzen da kontuan talde osoarentzat.

Azkenik, gerta daiteke pertsona batek hizkuntza bat baino gehiago erabiltzea bere jardunean. Kasu horietan, hizkuntza nagusia jasotzen da, gehien erabiltzen duena alegia.

Fitxak

Neurketetan erabilera-datuak biltzeko fitxa bakarra erabiltzen da. Material horren bidez, hiztunen ezaugarriak jasotzen dira, aldagai horiek hizkuntza-erabileran suposatzen duten baldintzapenaren neurri bat ateratzea ahalbidetuz. Hala, erabilera zenbatekoa den jakiteaz gain, hiru aldagai hauek euskararen erabilera duten eragina neurtzeko aukera eskaintzen digu fitxak: sexua, hurren presentzia eta neurtu diren taldeen adin-osaketa.

Neurraldi guztietan erabiltzen da fitxa bera; ikus ondoren fitxa horren irudiak:

HIZKUNTZA ERABILERAREN KALE NEURKETA
SOZIOLINGUISTIKAR KLUSTERRA
 T: 943 592 556
 kaleneurketak@soziolinguistika.eus

HERRIA: _____
 IBILBIDEA: _____
 EGUNA: _____ ORDUA: _____
 NEURTZAILEAK: _____

OHARRAK: _____

	EUSKARA	GAZTELERA	FRANTSESA	BESTERIK	HAURRAK (2-14 urte)	GAZTEAK (15-24 urte)	HELDUAK (24-64 urte)	ADINEKOAK (65-...urte)	Haurrak hitz egiten	
									BAI	EZ
01	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
02	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
03	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
04	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
05	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
06	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
07	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
08	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
09	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
10	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
11	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
12	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
13	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
14	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
15	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
16	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
17	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
18	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
19	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
20	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

Emakumezkoa Gizonezkoa

	EUSKARA	GAZTELERA	FRANTSESA	BESTERIK	HAURRAK (2-14 urte)	GAZTEAK (15-24 urte)	HELDUAK (24-64 urte)	ADINEKOAK (65-...urte)	Haurrak hitz egiten	
									BAI	EZ
21	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
22	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
23	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
24	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
25	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
26	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
27	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
28	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
29	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
30	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
31	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
32	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
33	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
34	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
35	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
36	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
37	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
38	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
39	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
40	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
41	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
42	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

Emakumezkoa Gizonezkoa



“Urretxuar eta zumarragarren” erabilera baino gehiago, Urretxu eta Zumarragako kaleetakoa

Azaltzen ari garen metodologia honek badu muga bat: ezin da ziurtatu kalean hizketan ari diren hiztun guztiak herrikoak direnik. Horregatik, ez da egokia neurtutakoa herriko biztanleen hizkuntza-erabilera dela esatea, izan ere, neurtutakoa herriko kaleetan jaso den erabilera da. Dena den, kasu batzuetan herrikoen erabilerara hurbiltzen nabarmen kanpotarrak (turistak) direnen elkarrizketak modu berezitan jaso ditugu.

Erabilera-datuen neurketek bere zailtasuna ere badutela gogoan izan behar da, hizkuntza-erabilera aldakorra den heinean. Beraz, kontuan izan behar da datu adierazgarriak jasotzen badira ere, euskararen kale-erabilera hori neurri txiki batean aldagarria dela. Horren arrazoia ulergarria da: kalean noiz norekin topo egingo dugun aurreikusi ezin daitekeenez, euren jarduera neurtzen diren hiztunak ez dira beti berdinak eta horrek herriko euskararen kale-erabileraren datua aldarazi dezake. Muga hori gainditzeko da, besteak beste, bereziki interesgarria maiztasun jakin batekin neurketak egin eta joera nagusiei erreparatzea. Hala eta guztiz ere, metodologia honek emaitzetatik zenbait ondorio orokor ateratzea bermatzen du.

Adierazgarritasuna

Datuen adierazgarritasuna bermatzeko garrantzitsua da laginaren tamainari begiratzea, behatutako elkarrizketa-kopuruari alegia. Are gehiago, aurrez aipaturiko hiru aldagaiek (sexua, adina eta haurren presentzia) euskararen kale-erabileran duten eragina aztertzeko gutxieneko elkarrizketa-kopuru bat bete behar da adierazgarritasun hori lortzeko. Egia da sarritan gazteen adin-taldean, 15-24 urte bitartekoen artean alegia, kalean behar baino hiztun gutxiago behatzen ditugula; izan ere, adin-talde honen joera erdigunetik haragoko eremuetan biltzea da eta zailtasunak ditugu gure laginean hiztun profil hau txertatzen.

Zentzu horretan, aldagaia zenbat eta zehatzagoa izan (adin-taldeak sexuaren arabera bereizterakoan, adibidez), lagina txikiagoa bihurtzen da, eta datuek adierazgarritasuna galtzen dute beharrezkoa den gutxieneko elkarrizketa-kopurua ez bada jaso. Hau da, aldagai guztiak aztertzeko lagin handia behar izaten da, izan ere, aldagai bat zenbat eta gehiago deskonposatu lagin txikiagoa gelditzen baita. Horrela, adibideari



erreferentzia eginez, gerta daiteke behatutako hiztunen adina taldeka banatzeko behar besteko lagina biltzea, baina adin-talde bakoitzean sexuaren araberako azterketa egiteko ez.

Oharrak

Atal honekin amaituz, hona hemen datu-bilketarako neurtzaileek eskura izan dituzten ohar-orriak:

HIZKUNTZA ERABILERAREN KALE NEURKETA

Zer neurtu behar da?

Kalean, eta soilik **kalean dabilen jendearen arteko hizkuntza erabileran**. Leku itxiak beraz (tabernak, dendak, kiroldegia, etxeak, lanategiak, garraioak, edonolako lokalak...), neurketa honetarik kanpo geratuko dira.

Neurketa, ez inkesta

Kalean goazela jendeari ez zailo galdetu behar normalean zein hizkuntzatan hitz egiten duen edo une horretan zein hizkuntzatan ari den mintzatan. **Ez galdetu, entzun** egin behar dugu eta entzuten dugun hizkuntza jaso, jendeari ezer esan gabe. Gure helburua kaleko hizkuntza-errealitatea bere horretan jasotzea da, ahalik eta modurik objektiboenean. Kalean doazenek ez dute jakin behar neurketa egiten ari garenik.

HIZKUNTZA ERABILERAREN KALE NEURKETA

Datuak nola jaso

Datuak orri berezietan jasoko dira (ikus beheko fitxa-orria). **Elkarrizketa bakoitza errenkada batean adieraziko da**, eta lau datu hartuko dira kontuan:

- Hizkuntza:** "Euskara", "gaztelera", "frantsesa" eta "besteik" (beste hizkuntzak). Hego Euskal Herrian euskara edo gaztelera ez den beste hizkuntza bat entzuten badugu "besteik" zutabea adieraziko dugu. Eta gauza bera egingo dugu, Ipar Euskal Herria euskara edo frantsesa ez diren beste hizkuntzekin.
- Adin taldea:** "Haurrak (2-14 urte bitartekoak)", "gazteak (15-24 urte)", "helduak (25-64 urte)" eta "adinekoak (65 urtetik gorakoak)". Jendeak zein adin izango duen sumatzea neurtzaileen egitekoa izango da, eta gutxi gorabehera egin beharrekoa da.
- Generoa:** Mintzaiden sexua jasoko dugu, "emakumezkoa" ala "gizonezkoa" den.
- Azkenik, **haurrek hitz egiten dutela** jasoko dugu, hau da, elkarrizketa entzuten dugun unean 2-14 urte bitarteko haurrak hitzuan aktiboak diren "bai" ala "ez".

Neurketa nola egiten den azaltzeko **HIRU ADIBIDE** jarriko ditugu:

- Bi haur (neska bat eta mutil bat) badoaz euskaraz hitz egiten (01 **elkarrizketa**):
 - Euskaraz laukian "X" markatu.
 - Haurren zutabea, emakumezkoen laukian "1" adierazi eta gizonezkoen laukian beste "1" adierazi.
 - "Haurrak hitz egiten" zutabea "bai" laukian "X" markatu.
- Senar-emazteak gaztelerez hitz egiten ari dira haien artean, 5 urteko alaba eta 16 urteko semea beralekin doaz balina hitz egin gabe (02 **elkarrizketa**):
 - Gaztelerez laukian "X" markatu.
 - Haurren zutabea emakumezkoen laukian "1" adierazi; gazteen zutabea gizonezkoen laukian "1"; eta helduen zutabea emakumezkoen laukian "1" eta gizonezkoen laukian beste "1" markatu.
 - Haurrak hitz egiten zutabea "ez" laukian "X" seinalatu.
- Bost gazte, bi neska eta hiru mutil, gaztelerez ari dira (03 **elkarrizketa**):
 - Gaztelerez laukian "X" markatu.
 - Gazteen zutabea emakumezkoen laukian "2" eta gizonezkoen laukian "3" adierazi.
 - Haurrak hitz egiten zutabea "ez" laukian "X" markatu.

HIZKUNTZA ERABILERAREN KALE NEURKETA

HERRIA: _____
 IBILBIDEA: _____
 EGUNA: **Urriak 08** ORDUA: **18.00-20.00**
 NEURTZAILEAK: _____

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA
 T: 943 592 556
 kaleneurketa@soziolinguitika.eus

EUSKARIA	GAZTELERA	FRANTSESA	BESTEIK	HAURRAK (2-14 urte)	GAZTEAK (15-24 urte)	HELDUAK (24-64 urte)	ADINEKOAK (65-... urte)	Haurrak hitz egiten	
								BAI	EZ
01	X			/	/			X	
02	X			/	/	/	/		X
03	X				2	3			X
04	X						2		X
05	X						2		X
06		X				/	/		X
07		X		2		/	/	X	
08	X				/		/		X
09	X						/	/	X
10	X					2			X
11	X				4				X
12	X			/		/		X	
13	X					3			X
14	X			2			/	X	
15	X					2	/		X
16	X			/	/			X	
17	X				2	/			X
18	X			/		/	/		X
19	X			3		/		X	
20	X			/	/				X

| Emakumezkoa | Gizonezkoa



2.2 “Urretxu-Zumarraga, 2017” neurketaren fitxa tekniko

Prozedurak

Aurreko puntuan azaldutako metodologiako xehetasun guztiak baliagarriak dira *Urretxu eta Zumarragako Hizkuntzen Erabileraren Kale-Neurketaren* berri emateko ere. Ez ditugu, hortaz, errepikatuko.

Ibilbideak

Arestian aurreratu moduan, ibilbide bakoitzaren nondik norakoa zehazterakoan eta definitzerakoan, herriko kalerik jendetsuenak biltzea izan da irizpide nagusia: plaza inguruak, parkeak, geltokiak, salerosketa-kaleak, eta abar. Ibilbidearekin batera, neurketa egiteko egunak eta orduak ere zehaztu ditugu, eta horiek hautatzean, herriko biztanle guztiak (potentzialki, behintzat) neurtu ahal izatea izan da gure helburua; alegia, hautatutako egun eta orduetan herritar guztiek edukitzea neurtuak izateko aukera.

Irizpide horiekin, 2017ko *Urretxu eta Zumarragako hizkuntza-erabileraren kale-neurketa* egiteko ibilbideak bost zonatan antolatu ditugu. Jarraian bildu ditugu zehatz-mehatz ibilbide bakoitzean neurtutako kaleak:

- 1. Ibilbidea:** Gernikako arbola, Kalebarren, Kale-Errota, Euskadi Plaza, Iparragirre kalea eta Etorbidea. “Avenida Berria” ere sartuko dugu (Urretxuko Iparragirre kalearen azpialdean geratzen da).
- 2. Ibilbidea:** Zirkuitu osoa: Secundino Esnaola, Labeaga kalea, Gernikako arbola Plaza, Areizaga kalea, Soraluze kalea eta Legazpi kalea. Ipeñarrieta kalea ere bai.
- 3. Ibilbidea:** Leturiatarren Enparantza eta Izazpi auzoa-plaza: Antonio Oraa kalea, Leturiaren Enparantza, Izazpi auzoa, Elgarrestamendi, Ipar Haizea auzoa eta Busca Isusi auzoa.
- 4. Ibilbidea:** Eitza auzoa: San Gregorio kalea da, Gasolindegitik Korta tabernaraino.



Landa-lana

Landa-lanari dagokionez, 2017ko urrian egin dugu, eta neurraldi hauen arabera osatu da egutegia:

Eguna	Ordutegia
Urriak 4, asteazkena	17:00-19:00
Urriak 7, larunbata	11:00-13:00
Urriak 7, larunbata,	17:00-19:00
Urriak 18, asteazkena	17:00-19:00
Urriak 21, larunbata	11:00-13:00
Urriak 21, larunbata,	17:00-19:00

Unibertsoa, lagina eta emaitzen adierazgarritasuna

Unibertsoa: Urretxu eta Zumarragako kaleetan entzun daitezkeen elkarrizketak.

Lagina: behaketa egin dugun bitartean, behatu ditugun **2.818 elkarrizketek** eta horietan solaskide izan diren **7.706 herritarrek** osatu dute lagina¹.

Akats-tartearen kalkulua (erabat ausazkoak diren laginketei egozgarria): Akats-tartea bertakoen datuekin kalkulatu dugu. $\pm\%1,42$ koa elkarrizketen lagin osoarentzat, $\%95,0$ ko konfiantza mailan.

¹ EUSTAT, Biztanleria eta Etxebizitzaren Zentsuaren arabera 2011n Urretxu-Zumarragan 16.3969 herritar bizi ziren (6.721 Urretxun eta 9.675 Zumarragan).



2.3 Laginaren osaera

Behatutako 2.818 elkarrizketa eta horietan solaskide izan diren 7.706 herritarren ezaugarriak jakitea beharrezkoa da unibertsoaren ordezkagarritasuna aztertzeko garaian. Hau da, gure azterketarako laginaren osaerari erreparatzea garrantzitsua da urretxuar eta zumarragarren ezaugarriak modu berean bildu ote diren jakiteko eta zer nolako akats-tartea dugun jakiteko. Beraz, laginaren osaerari erreparatuz, azterketan egin dezakegun akats tartearen balorazio bat egingo dugu.

Dena den, laginaren osaera eta Urretxuar eta zumarragarren adin-tarteen proportzionaltasunaren alderaketa neurri batean da kontuan hartzekoa, izan ere, ez baita bere horretan gure helburua herritarren erabileraren argazkia ateratzea, baizik eta Urretxu eta Zumarragako kaleetan entzuten den erabilera neurtzea. Kaleetan entzuten diren elkarrizketak ez dira soilik herritarren artekoak izaten, eta elkarrizketetan parte hartzen duten pertsonak ez dute zertan herritarrek dituzten ezaugarri berberak izan beharrik.


Adin-tarte osaera

Batetik, lagina osatu duten hiztunen adinean jarriko dugu arreta, lehenengo grafikoan ikus daitekeen bezala. Lagineko hiztun gehienak 25-64 urte bitartekoak (%45,2) dira. Ondoren, 2-14 urtekoak (%28,1) eta 64 urtetik gorakoak (%17,4). Azkenik, 15-24 urte bitartekoak dira (%9,3) laginean pisu gutxien duten hiztunak. Beraz, jasotako elkarrizketa gehienak haur, helduen eta adinekoen artekoak izan direla ondoriozta daiteke, hiru adin-taldeko hiztunak batuz ia lagin osoa osatzen baitute (%91).

Laginaren eta unibertsoaren arteko alderaketa eginez, desoreka handiena haurren eta gazteen proportzioan dago. Haurrek populazioan osatzen dutenak baino proportzio handiagoan izan dira behatuak kale-neurketa honetan. Gazteak, aldiz, Urretxu eta Zumarragako biztanlerian osatzen dute proportzioa baino txikiagoan behatu dira.

Diferentzia edo desoreka hauen atzean ez dago neurketaren akatsik; neurketak kalean gertatzen denaren argazkia ematen digu. Kasu honetan, erakusten diguna da kalean hurrek presentzia gehiago dutela eta gazteek gutxiago. Edonola ere, emaitzen irakurketa egitean kontuan eduki beharrekoak dira jasotako laginaren ezaugarri hauek.

GRAFIKOA eta TAULA: LAGINAREN ADIN-TARTE OSAERA, UNIBERTSOAREKIN ALDERATUZ URRETXU-ZUMARRAGA, 2011-2017




	LAGINA (2016)		UNIBERTSOA (2011)	
	Kop.	(%)	Kop.	(%)
2-14 urte	2.157	13,16	2.167	28,12
15-24 urte	3.547	21,63	720	9,34
25-64 urte	7.229	44,09	3.480	45,16
>64 urte	3.463	21,12	1.339	17,38
GUZTIAK	16.396	100	7.706	100

Iturria: Lagina: Soziolinguistika Klusterra, Urretxu eta Zumarragako hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2017. Unibertsua: EUSTAT, Biztanleriaren eta Etxebizitzen Estatistika, 2011.

Sexu osaera

Bestetik, komenigarria da sexuaren arabera lagina nola osatzen den kontuan izatea honek ere emaitzen interpretazioan eragina izan baitezake.

GRAFIKOA eta TAULA: LAGINAREN ETA UNIBERTSOAREN OSAERA, SEXUAREN ARABERA. URRETXU-ZUMARRAGA, 2017 (%)



	LAGINA (2017)		UNIBERTSOA (2011)	
	Kop.	(%)	Kop.	(%)
Emakumezkoak	4.202	54,53	8.175	49,86
Gizonezkoak	3.504	45,47	8.221	50,14
GUZTIAK	7.706	100	16.396	100

Iturria: Lagina: Soziolinguistika Klusterra, Urretxu eta Zumarragako hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2017. Unibertsoa: EUSTAT, Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistika, 2011


Bigarren grafikoan ikus daitekeenez, Urretxu eta Zumarragako biztanleriaren %49,9 emakumezkoak eta %50,1 gizonezkoak dira EUSTATen 2011ko eroldaren arabera. Biztanleria erdi eta erdi banatzen dela esan daiteke. Laginean, ordea, emakumezkoek pisu handiagoa dute gizonezkoek baino. Emakumezkoak laginaren %54,5 dira eta gizonezkoak %45,5. Adinaren gaiarekin aipatu bezala, datu hauek erakusten dutena kaleko bizitzaren ezaugarriak dira; emakumeek gizonek baino presentzia handiagoa dute Urretxu eta Zumarragako kaleetan. Ez da datu-bilketaren edo neurketaren arazo bat, aztertzen ari garen eremuaren ezaugarri bat da, emaitzen irakurketan kontuan hartu beharrekoa.

3. Erabilera Urretxu-Zumarragan, 2017. urtean: emaitza orokorra

3.1 Kalean, bost elkarrizketatik bat euskaraz

Urretxu eta Zumarragako kaleetan entzundako elkarrizketen bostena baino gehixeago da euskaraz, %22,3 zehatzago esateko. Gainerakoak gaztelaniaz (%75,2) zein beste hizkuntza batzuetan izan dira (%2,5).


3. GRAFIKOA eta TAULA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA. URRETXU-ZUMARRAGA, 2017 (%)



■ Euskara ■ Gaztelania ■ Beste hizkuntzak

	Kop.	(%)
Euskaraz	1.721	% 22,30
Gaztelaniaz	5.795	% 75,20
Beste hizkuntzetan	190	% 2,50
GUZTIRA	7.706	% 100

Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Urretxu eta Zumarragako hizkuntza-erabilera kale-neurketa, 2017.



Horixe da 2017ko urrian Urretxu eta Zumarragan egindako neurketaren emaitza nagusia. Neurketa nola egin dugun (erabilitako metodoa, alegia) zehatz-mehatz azaldu dugu txosten honetako 2. atalean. Gogora dezagun, besterik gabe, **2.818 elkarrizketa** behatu ditugula Urretxu-Zumarragan, eta **7.706 lagun** izan direla guztira elkarrizketa horietako solaskide. Ikerketa sozialean erabili ohi diren parametroetan, kopuru handia da hori 16.396 hiztun dituen herri batentzat². Termino estatistikoetan, esan dezakegu euskarazko elkarrizketen %22,3ko datu horri **±1,42ko akats-tartea** dagokiola, %95,0ko konfiantza mailan³. Oinarri sendoa da, beraz, herritarren hizkuntza-portaerak deskribatzeko.

3.2 Testu-inguratzeko bi datu garrantzitsu: herritarren hizkuntza-gaitasuna eta espero daitekeen erabilera.

Ehuneko 22,3koa da, hortaz, euskararen erabilera⁴ Urretxu-Zumarragan. Hori asko den edo gutxi den hausnartzeko, ezinbestekoa iruditzen zaigu, ezer baino lehen, beste bi datu aintzat hartzea: herrian euskaraz hitz egiteko gai direnen proportzioa (euskaldunen proportzioa, alegia) eta euskaldun-kopuru horretatik estatistikoki “espero daitekeen erabilera” bestetik. Jarraian aurkeztuko ditugu datuok.

Urretxuar eta zumarragarren hizkuntza-gaitasuna

EUSTATEk 2011. urtean egindako *Biztanleriaren eta Etxebizitzen Estatistikaren* arabera, biztanleriaren %50,24 euskalduna zen Urretxu eta Zumarraga batuta. Beste zati esanguratsu bat (%23,01) euskaraz ulertzeko gai da, hitz egiten jakin ez arren. Biztanleriaren gainerako %26,75a erdalduna zen⁵, euskara hitz egiten jakin ez eta ulertzeko gai ere ez zirenak.


² Iturria: EUSTAT, Biztanleria eta Etxebizitzen zentsua, 2011.

³ Hizkuntzen erabileren kale-neurketetarako Soziolinguistika Klusterrak berariaz landutako eredu matematikoaren emaitza (ikus <http://www.soziolinguistika.eus/lagina/eskaera/kale-erabilera>).

⁴ Berez, zentzu hertsian, “kale-erabileraz” hitz egin beharko genuke. Azalpena arintzearen ordea, “erabilera” terminoa erabiliiko dugu. Izan kontuan ohar hau txosten osorako.

⁵ Kategoriatu horiek euskararen jakite mailari buruz egiten diren lau galderei (ulertzen duzu?, hitz egiten duzu?, irakurtzen duzu?, eta idazten duzu?) erantzundakoaren arabera lortu dira. Aukeran ematen diren erantzunak (ezer ez, nekez, eta ondo) konbinatuz, zazpi hiztun-kategoria sortzen dira, eta zazpi horiek bilduz, guk aurkeztutako hirurak.

4.GRAFIKOA eta TAULA. EUSKARAZKO HIZKUNTZA-GAITASUNA. URRETXU-ZUMARRAGA, 2017 (%)



	Kop.	(%)
Euskaldunak	8.237	50,24
Ia euskaldunak	3.773	23,01
Erdaldunak	4.386	26,75
GUZTIAK	16.396	100

■ Euskaldunak ■ Ia Euskaldunak ■ Erdaldunak

Iturria: EUSTAT, Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistika, 2011

		ULERTU	HITZ EGIN	IRAKURRI	IDATZI
EUSKALDUNAK	ALFABETATUAK	Ondo	Ondo	Ondo	Ondo
	ERDI-ALFABETATUAK	Ondo	Ondo	Nekez	Nekez
	ALFABETATUGABEAK	Ondo	Ondo	Ez	Ez
IA EUSKALDUNAK	ALFABETATUAK	Ondo/ Nekez	Nekez	Ondo/ Nekez	Ondo/ Nekez
	ALFABETATUGABEAK	Ondo/ Nekez	Nekez	Ez	Ez
	PASIBOAK	Ondo/ Nekez	Ez	Ez	Ez
ERDALDUNAK		Ez	Ez	Ez	Ez




Espero daitekeen euskararen erabilera

Udalerrri bateko hizkuntzen erabilerearen neurketa egiterakoan, emaitzak baloratu ahal izateko elementuak bilatzen ditugun. Gizartean eta kalean hainbat hizkuntza hitz egiten dira; gizartean eta kalean hizkuntza-gaitasunari dagokionez profil desberdinekoak diren pertsonak daude harremanean. Hizkuntza-erabilera gertakari soziala da; eta pertsona bat baino gehiagoren artean ematen den elkarrekintzak determinatzen du. Euskal Herrian ematen den euskararen erabilera datua baloratzeko, dugu elementuetako bat estatistikoki “espero daitekeen erabilera” edo erabilera isotropiakoak da. Jose Luis Alvarez Enparantza “Txillardegi”k garatutako *hizkuntza-erabilera aztertze*ko eredu matematikotik⁶ eratorritako kontzeptua. Eredu horren bitartez, herri edo gune batean euskaldunetz osatutako talde-elkarrizketak emateko dagoen probabilitatea kalkulatu, estatistikoki *espero daitekeen euskararen erabilera* kalkulatzeko modua aurkeztu zuen.

Kalkulu hau egiteko, testuinguru hipotetiko batean zenbait aurrebaldintza ezartzen ditu ereduak:

- Pertsonen arteko hizketaldiak ausaz gertatuko lirateke (egoera isotropikoa). Edonor edonorrekin hizketan jartzeko probabilitate bera dagoela aurre-ezartzen da.
- Guneko euskaldun proportzioa kontuan hartzen da.
- Aurre-ezartzen da euskaldunek euskaldunekin beti euskaraz egingo dutela (euskararekiko erabateko leialtasunaren hipotesia)
- *Aurre-ezartzen da talde batean euskaraz hitz egiten ez dakien pertsona bat egonez gero, elkarrizketa hori ez dela euskaraz izango.*

⁶ Gaian sakontzeko ikus Alvarez Enparantza, J. L., Txillardegi, 2001, Hacia una Socio-Lingüística Matemática. Donostia: Euskal Soziolinguistika Institutua Sortzen; Isasi, X eta Iriarte, A, 1998, “Euskararen kale-erabilera. Txillardegiren eredu matematikoa”, *BAT Soziolinguistika aldizkaria* 28, 51-80 orr.



Eta honako formula aplikatzen da:

$$P_B = m_B (w_2 e_x^2 + w_3 e_x^3 + w_4 e_x^4)$$

P_B = euskararen erabilera-maila

m_B = euskararekiko leialtasuna

e_x = elebidunen proportzioa

w_2 = binakako elkarrizketen proportzioa

w_3 = hirunakako elkarrizketen proportzioa

w_4 = launaka edo talde handiagoan ematen diren elkarrizketen proportzioa

Dagokigun kasuan, Urretxu-Zumarragan neurtutako erabilera (%22,3 euskaraz) herri hauen ezaugarri soziolinguistikoak kontuan hartuta handia edo txikia den baloratzeko, bertako herritarren artean euskaldunek osatzen duten proportzioa kontuan hartuko da (esan bezala, %50,24 ziren 2011n). Beraz, formula honela aplikatuko genuke Urretxu eta Zumarragako errealitatean:


$$PB = 1,0 \cdot (0,60 \cdot 0,5022 + 0,22 \cdot 0,5023 + 0,18 \cdot 0,5024) = 0,191 = \%19,1$$

Kalkuluak eginda, hortaz, Urretxu-Zumarragako kaleetan bertako biztanleak bakarrik baleude, beraien artean hitz egiteko zoriz elkartuko balira, euskaraz ez dakiten kideren bateko taldeetan beti beste hizkuntza bat erabiliko balitz eta euskaldunez osatutako taldeetan beti euskaraz hitz egingo balitz, kaleko elkarrizketetan %19,1ekoa litzateke euskararen erabilera.

3.3 Euskararen erabilera Urretxu-Zumarragan, hizkuntza-gaitasuna eta erabilera isotropikoa aintzat hartuta

Jar ditzagun taula batean eta irudikatu ditzagun grafiko batean orain arte aipatu ditugun hiru datuak:


5. GRAFIKOA eta TAULA: EUSKALDUNEN PROPORZIOA, ESTATISTIKOKI ESPERO DAITEKEEN ERABILERA ETA EUSKARAREN KALE-ERABILERA. URRETXU-ZUMARRAGA, 2011-2017 (%)



	(%)
Hizkuntza-gaitasuna - Euskaldunen proportzioa (2011)	50,2
Kaleko erabilera behatua (2017)	22,3
Espero daitekeen erabilera- Erabilera isotropikoa (2011)	19,1

Iturriak: Soziolinguistika Klusterra, Urretxu eta Zumarragako hizkuntza-erabilerearen kale-neurketa, 2017; EUSTAT, Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistika, 2011. Espero daitekeen erabilera-daturako Soziolinguistika Klusterraren kalkulua.

Euskaldunak Urretxu eta Zumarragako biztanleen erdia dira (%50,2), kalean hiztunen %22,3 ari zen euskarazko elkarrizketetan parte hartzen eta estatistikoki espero zitekeen erabilera %19,1ekoa zen.




Kaleko erabilera behatua “espero daitekeena” baino altuagoa izateak esan nahi du kalkulu hori egiteko aurre-ezartzen diren baldintzak gainditu egiten direla. Ez dakigu esaten zein baldintzak zein proportziotan eragiten duen datu horretan, baina pentsa liteke Urretxu eta Zumarragan herritarren harremanak ez direla ausazkoak; antzeko profil linguistikoa duten pertsonak euren arteko harremanak izateko aukera gehiago daudela beste inorekin baino (ohikoa, familian, eskolen inguruko giroan, auzuneka...). Horren kontrapisu bezala, badakigu euskaldunez osatutako taldeetan euskararen erabilera ez dela %100ekoa izaten. Eredu hipotetikoan eraikitzen den bezala, leialtasuna ez da erabatekoa. Azkenik, baloratu beharko genuke ea euskaraz hitz egiteko gai ez den pertsonak dauden taldeetan euskararen erabilerarik ematen den ala ez. Laburbiltzeko, Urretxu eta Zumarragako kaleetako erabilera estatistikoki espero daitekeenaren zertxobait gaineratik kokatzen da, baina tartea nahiko txikia da (3,2 puntu).

4. Erabileraren bilakaera Urretxu-Zumarragan (2001-2017)

4.1 Euskararen erabilera nahiko egonkor


Urretxu eta Zumarragako kaleetako hizkuntza-erabilera bost aldiz neurtu da 2001etik. neurketek, oro har, diseinu berbera izan dute, eta datu-bilketak metodologia berean oinarrituta egin dira. Horrez gain, kontuan hartu behar da, neurketa batetik besterako tarteak beti lau urtekoa izan dela, beraz, erregulartasuna eta homogeneotasuna ziurtatuta daude datuen azterketarako.

6 GRAFIKOA eta TAULA: EUSKARAREN KALE-ERABILERAREN BILAKAERA. URRETXU-ZUMARRAGA, 2001-2017. EUSKARAZ (%)



	Euskararen erabilera (%)	Oinarria (behartutako solaskideak) Kop.
2001	22,7	2.318
2005	22,7	2.667
2009	18,9	4.190
2013	23,4	5.206
2017	22,3	7.706

Iturriak: Soziolinguistika Klusterra, Urretxu-Zumarragan hizkuntza-erabileraren kale-neurketak, 2001, 2005, 2009, 2013 eta 2017.




Goiko grafikoak eta taulak erakusten duten bezala, azken hamasei urteotan Urretxu eta Zumarragako kaleetan euskararen erabilera maila nahiko egonkor dago. 2001 urteko datutik 2017kora ez dago ia alderik (-0,4). Bitarte honetan, gainera, azken neurketa honetako baino 3,4 puntu txikiagoa edo 1,1 puntu handiagoa izatera heldu da euskararen erabilera. Kontuan hartuta aurtengo neurketaren akats tarteak $\pm 1,42$ koa dela, oso bariazio txikiaz ari gara eta ezin da ondorioztatu 2001etik 2017ra goranzko edo beheranzko joera garbirik dagoenik. Ondorio nagusia da erabilera-maila egonkor dagoela azken 16 urteotan.

4.2 Ezagutzaren bilakaera

Euskararen erabilera ulertzeko Urretxu-Zumarragan interesgarria da aztertzea herritarren hizkuntza-gaitasunak izan duen bilakaera. Ondorengo grafiko eta taulatan ikus daitezke herritarren hizkuntza-gaitasunari buruzko datuak, 1986. urtetik 2011. urtera bitartekoak.

7. GRAFIKOA eta TAULA: EUSKARAZKO HIZKUNTZA-GAITASUNAREN BILAKAERA. URRETXU-ZUMARRAGA, 1981-2011 (%)




	1981	1986	1991	1996	2001	2006	2011
	(kop.)	(kop.)	(kop.)	(kop.)	(kop.)	(kop.)	(kop.)
Euskaldunak	5.859	6.413	7.007	7.332	8.089	7.899	8.237
la euskaldunak	2.350	3.047	2.668	2.784	2.686	2.939	3.773
Erdaldunak	9.592	8.201	7.230	6.154	5.509	5.081	4.386
GUZTIAK	17.801	17.661	16.905	16.270	16.284	15.919	16.396
	(%)	(%)	(%)	(%)	(%)	(%)	(%)
Euskaldunak	32,91	36,31	41,45	45,06	49,67	49,62	50,24
la euskaldunak	13,20	17,25	15,78	17,11	16,49	18,46	23,01
Erdaldunak	53,88	46,44	42,77	37,82	33,83	31,92	26,75
GUZTIAK	100	100	100	100	100	100	100

Iturria: EUSTAT, Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuak eta Estatistikak, 1981, 1986, 1991, 1996, 2001, 2006, 2011.

Hizkuntza-gaitasunaren bilakaera aztertzeko EUSTATEk bost urtean behin egiten duen zentsuko datuak erabil daitezke. 1981etik 2011rako bilakaerari erreparatuz, ikus daiteke euskaldunen proportzioak hazkunde handia izan duela; ia euskaldunena ere hazi egin dela eta erdaldunenak berriz nabarmen egin duela behera. Euskaldunak herriko biztanleriaren herena (%32,9) izatetik erdia (%50,2) izatera pasa dira. la euskaldunak %13tik %23ra pasa dira. Eta erdaldunak biztanleriaren erdia baino gehiago ziren 1981ean, baina 30 urteren buruan laurdena baino gehixeago (%26) dira soilik.

Epe luzeko ikuspegi honetaz gain, ordea, komeni zaigu kale-erabileraren neurketari dagokion urte-tarteari begiratzea. Kale-neurketak 2001-2017 epean egin dira eta hizkuntza-gaitasunari dagokionez 2001-2011 epeko datuak dauzkagu eskura. Esan daiteke euskaldunen proportzioa




ia ez zela aldatu hamarkada horretan (+0,6). Ia euskaldunen proportzioa 6,5 puntu handiagoa izatera pasa zen eta erdaldunena, berriz, 6 puntu txikiagoa. Euskaldun proportzioaren egonkortasun horrek kale-erabileraren datu orokorrean ematen den egonkortasuna ulertzeko pistaren bat ematen digu.

5. Euskal Herriarekiko, Gipuzkoarekiko eta beste herriekiko alderaketa

5.1 Euskal Herriko eta Gipuzkoako kale-erabileraren datuekiko alderaketa

Ondorengo grafikoan, Euskal Herrian, Gipuzkoan eta Urretxu-Zumarragan jasotako datuak alderatuko ditugu.

8.GRAFIKOA eta TAULA: EUSKAL HERRIKO, GIPIZKOAKO ETA URRETXU-ZUMARRAGAKO HIZKUNTZEN ERABILERAREN KALE-NEURKETEN ALDERAKETA. URRETXU-ZUMARRAGA, 2016-2017. EUSKARAZ (%)



	Euskararen kale-erabilera
Euskal Herria (2016)	12,6
Gipuzkoa (2016)	31,1
Urretxu-Zumarraga (2017)	22,3


Iturriak: Soziolinguistika Klusterra, Urretxu eta Zumarragako hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2017 eta Euskal Herriko hizkuntzen kale-erabileraren neurketa, 2016.

Zortzigarren grafikoak eta taulak erakusten dutenez, Urretxu eta Zumarragako euskararen kale-erabilera Euskal Herrikoaren gainetik dago (%12,6), baina Gipuzkoako erabilera baino bederatzi puntu baxuagoa da (%31,1).

5.2 Hizkuntza-gaitasuna, kaleko erabilera eta espero daitekeen erabilera Euskal Herriko, Gipuzkoako eta Urretxu-Zumarragako datuen alderaketa

Orain arte eskainitako datuak apur bat testu-inguratzeko, kontuan har ditzagun eremu bakoitzeko herritarren hizkuntza-gaitasuna eta hizkuntza-gaitasun horren arabera “espero daitekeen erabilera”. Datu horiek 9. grafiko eta taulan ikus daitezke.

9.GRAFIKOA eta TAULA: HIZKUNTZA-GAITASUNA, KALEKO ERABILERA ETA ESPERO DAITEKEENA. EUSKAL HERRIA, GIPUZKOA ETA URRETXU-ZUMARRAGAREN ARTEKO ALDERAKETA. 2011-2017 (%)




	Euskaldunen proportzioa (2011)	Espero daitekeen erabilera (2011)	Kaleko erabilera (2016-2017)
Euskal Herria	12,6	27,6	5,1
Gipuzkoa	31,1	53,3	21,8
Urretxu-Zumarraga	22,3	50,2	19,1

Iturria: Gaitasunetarako EUSTAT, Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistika, 2011. Euskal Herriko Hizkuntzen Erabilerearen Kale-Neurketa (2016) eta Urretxu eta Zumarragako (2017) Kale-Neurketa. Espero daitekeen erabilerarako Soziolinguistika Klusterreko kalkuluak.

5.3 Inguruko hainbat herrirekiko alderaketa


Datu horiek apur bat gehiago testuinguratzeko, aurrez neurketa bereziak egin izan diren beste hiru udalerrirekin alderatu dugu Urretxu eta Zumarragako erabilera. Ordizia eta Beasain Goierri kokatuta daudelako; Andoain, berriz, bai biztanleria aldetik eta bai euskararen ezagutza maila aldetik konparaketarako baldintza egokiak ematen dituelako.

10. GRAFIKOA eta TAULA: HIZKUNTZA-GAITASUNA, ERABILERA ETA ESPERO DAITEKEEN ERABILERA. HAINBAT UDALERRIREN ALDERAKETA, 2011-2017 (%)



Udalerria	Biztanleria	Euskaldunen proportzioa (2011)	Espero daitekeen erabilera (2011)	Kaleko erabilera (2016-2017)
Urretxu-Zumarraga	16.871	50,2%	19,1%	22,3%
Ordizia (2017)	9.509	57,2%	25,7%	43,7%
Andoain (2016)	14.850	52,4%	21,0%	21,6%
Beasain (2013)	13.755	55,8%	24,2%	35,7%

Iturriak: Gaitasunerako: EUSTAT, Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistika, 2011. Kale-erabilerarako: Beasain (2013), Andoain (2016), Ordizia (2017) eta Urretxu-Zumarragako Hizkuntzen Erabileraren Kale-Neurketa (Soziolinguistika Klusterra). Espero daitekeen erabilerarako: Soziolinguistika Klusterraren kalkuluak.



Lau herrietako datuak elkarren ondoan jarrita, lehen inpresio batean behintzat, ikus daiteke Urretxu-Zumarragako kasuak antzekotasun gehiago duela Andoainekin, Beasain eta Ordiziarekin baino. Urretxu-Zumarraga eta Andoainen kaleko erabileraren datua herriko euskaldun proportzioaren erdia baino baxuagoa da.; Ordizia eta Beasainen, ordea, bi datu hauen arteko harremana bestelakoa da; alde txikiagoa da (proportzionalki.

Lau herrien kasuan kalean neurtutako euskararen erabilera estatistikoki espero daitekeena baino altuagoa izan da. Hala ere, Urretxu-Zumarraga eta Andoainen bi datu hauen arteko aldea txikia (<2,2 puntu) den bitartean, Ordizia eta Beasainen alde esanguratsua dago (>10 puntu).


Antzekotasun eta desberdintasun hauen atzean dagoenaren bila, kontuan izan behar da hizkuntza-gaitasunaren eta kaleko erabileraren datuen arteko harremana ez dela lineala izaten. Euskaldunen proportzioan diferentziak direnak, are diferentzia handiago bezala islatzen dira erabileran. Horregatik, eskualde desberdinetakoak izan arren, Andoain eta Urretxu-Zumarragako euskaldun proportzioak eramaten ditu espero daitekeen erabilera eta kaleko erabileraren datuetan eta hauen arteko erlazioetan antzekotasunak izatera.

6. Zonaldekako emaitzak

6.1 Zonaldeen araberako emaitzak

Herritarrek leku publikoetan zer hizkuntza erabiltzen duten neurtzea xede izanik, bizitza soziala gertatzen den zonaldeetan egiten dugu behaketa. Zonalde horiek zehazteko, herritarren harreman-gune nagusiak non kokatzen diren zehaztu ohi da eta zein ibilbideri jarraitu diseinatzen da, udaleko arduradunekin elkarlanean. Urretxu eta Zumarragako kasuan, lau ibilbidetan antolatu da neurketa. 2017ko honetan, 2001etik aurrera erabili izan den ibilbide-diseinua errepikatu da.

11. GRAFIKOA eta TAULA: EUSKARAREN KALE-ERABILERA, ZONALDEAREN ARABERA. URRETXU-ZUMARRAGA, 2017 (EUSKARAZ, %)



Zona	Euskaraz	Gaztelaniaz	Beste hizkuntzak
1. ibilbidea	29,1%	69,5%	1,3%
2. ibilbidea	29,8%	68,3%	1,8%
3. ibilbidea	5,8%	91,6%	2,6%
4. ibilbidea	13,0%	81,3%	5,7%

Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Urretxu eta Zumarragako hizkuntzen kale-erabileraren neurketa, 2016.



Ez dago soberan, une honetan, lau ibilbideek zein kale eta plaza zeharkatzen dituzten gogoraraztea:


- 1. Ibilbidea:** Gernikako arbola, Kalebarren, Kale-Errota, Euskadi Plaza, Iparragirre kalea eta Etorbidea. “Avenida Berria” ere sartuko dugu (Urretxuko Iparragirre kalearen azpialdean geratzen da).
- 2. Ibilbidea:** Zirkuitu osoa: Secundino Esnaola, Labeaga kalea, Gernikako arbola Plaza, Areizaga kalea, Soraluze kalea eta Legazpi kalea. Ipeñarrieta kalea ere bai.
- 3. Ibilbidea:** Leturiatarren Enparantza eta Izazpi auzoa-plaza: Antonio Oraa kalea, Leturiaren Enparantza, Izazpi auzoa, Elgarrestamendi, Ipar Haizea auzoa eta Busca Isusi auzoa.
- 4. Ibilbidea:** Eitza auzoa: San Gregorio kalea da, Gasolindegitik Korta tabernaraino.

Emaitzetan alde oso handia dago ibilbideen artean. 1 eta 2 ibilbideetan euskararen erabilera 4 ibilbidearen bikoitza baino handiagoa da eta 3 ibilbidearen boskoitza baino handiagoa.

7. Hitzunen ezaugarrien arabera erabilera

7.1 Sexuaren arabera emaitzak

12. GRAFIKOA eta TAULA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA, SEXUAREN ARABERA. URRETXU-ZUMARRAGA, 2016 (EUSKARAZ, %)



	Emakumezkoak	Gizonezkoak
Euskaraz	%23,3	%21,1
Gaztelaniaz	%74,4	%76,1
Beste hizkuntzetan	%2,2	%2,8
GUZTIRA	100	100


Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Urretxu eta Zumarragako hizkuntza-erabilerraren kale-neurketa, 2017.

Urretxu-Zumarragako neurketaren emaitzetan emakumeen euskararen erabilera gizonezkoena baino 2,2 puntu altuagoa dela ikus daiteke. Orokorrean, Euskal Herri mailan, joera hau bera errepikatzen da batezbeste, nahiz eta badauden joera orokorretik kanpoko herriak ere. Aurrera begira azterketa sakonagoa eskatuko duen gaia da, ziurrenik berariazko datu-bilketak eskatuko lituzkeen gaia da.

7.2 Sexuaren araberako bilakaera

Sexuaren araberako bilakaera aztertzeko 2001etik 2017ra arteko datuak alderatuko ditugu.

13. GRAFIKOA eta TAULA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA, SEXUAREN ARABERA. URRETXU-ZUMARRAGA, 2001-2017. (EUSKARAZ, %)



	GUZTIAK	Emakumezkoak	Gizonezkoak
2001	22,7	19,6	21,7
2005	22,7	15,6	17,1
2009	18,9	19,4	18,3
2013	23,4	25,2	21
2017	22,3	23,3	21,1


Iturriak: Soziolinguistika Klusterra, Urretxu-Zumarragan hizkuntza-erabilerearen kale-neurketak, 2001, 2005, 2009, 2013, 2017.

Ikus daiteke 2001 eta 2005eko neurketetan gizonezkoek euskararen erabilera altuagoa izan zutela eta 2009, 2013 eta 2017koan, aldiz emakumezkoena izan dela altuagoa. 2013koan egon zen datuen artean alderik handiena (4 puntu) baina bestela, normalean bi puntu inguruko tarte egon izan da.

7.3 Adinaren araberako erabilera


Alde esanguratsuak antzematen dira hizkuntza-portaeran adinaren arabera aztertuz gero. Euskaraz gehien hitz egiten dutenak haurrak dira Urretxu-Zumarragan, Euskal Herrian oro har gertatzen den bezala: haurren euskararen erabilera %29,5koa da. Helduak (25-64 urte) dira, jarraian, euskara gehien erabiltzen dutenak: %22,3). Herriko gazteek, 15 eta 24 urte bitartekoek, %17,9ko euskararen erabilera egiten dute kalean. Azkenik, adinekoen erabilera %13,1koa da.

14. GRAFIKOA eta TAULA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA ADINAREN ARABERA. URRETXU-ZUMARRAGA 2016 (EUSKARAZ, %)



	GUZTIAK	Haurrak	Gazteak	Helduak	Adinekoak
Euskaraz	%22,3	%29,5	%17,9	%22,3	%13,1
Gaztelaniaz	%75,2	%66,3	%81,1	%75,1	%86,7
Beste hizkuntzetan	%2,5	%4,2	%1,0	%2,6	%0,1
GUZTIRA	100	100	100	100	100
Oinarria (behatutako solaskideak)	7.706	2.167	720	3480	1.339

Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Urretxu eta Zumarragako hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2017.




Belaunaldi berriak etorkizunaren aitzindari eta aurrerapen diren heinean, haurren eta gazteen erabilera aurretik izatea da desiragarriena hizkuntzaren berreskurapena lortze aldera. Kasu honetan, ez da hala gertatzen, helduen erabilera gazteena baino altuagoa baita. Datu hauen irakurketan, funtsezkoa da laginaren eta adin-banaketaen bi ezaugarri kontuan hartzea:

- Batetik, gazte gutxi behatu direla neurketa honetan. Gutxi izan dira kopuru absolutuetan (ikus 14 taula) eta gutxi izan dira herriko populazioan osatzen duten proportzioari dagokionez.
- Bestetik, adin-taldeen banaketa 80ko hamarkadan sortu eta mantendu den irizpidea jarraituz erabili dela. Helduen taldea oso handia da, oso profil desberdineko herritarrak biltzen dira bere baitan; ziurrenik sozialki gazte bezala hautematen diren pertsona asko tartean. Gainera, herriko biztanleriaren oso zati handia osatzen duenez, helduen erabilera-mailak markatzen du neurri oso handian herriko erabilera-mailaren datua.

7.4 Adinaren araberako erabileraren bilakaera

16. GRAFIKOA eta TAULA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERAREN BILAKAERA, ADINAREN ARABERA. URRETXU-ZUMARRAGA, 2001-2017 (EUSKARAZ, %)



	Haurrak (2-14 urte)	Gazteak (15-24 urte)	Helduak (25-64 urte)	Adinekoak (>64 urte)
2001	41,8	29,2	15,1	14
2005	35,8	25,5	20	11,5
2009	30,4	15,3	16,9	7,9
2013	34,2	22,6	20,1	15,1
2017	29,5	17,9	22,3	13,1

Iturriak: Soziolinguistika Klusterra, Urretxu eta Zumarragako hizkuntza-erabileraren kale-neurketak, 2001, 2005, 2009, 2013 eta 2017.

Urretxu eta Zumarragako erabilera orokorrari erreparatzea egonkortasuna nabarmendu bada ere, adin-taldekako azterketan bada bestelakorik. Haur eta gazteen euskararen erabilerak beherantz egin du 2001eko neurketatik 2017ko honetara. Haurren kasuan 12,3 puntuko jaitsiera izan



da eta gazteenean 11,7koa. Duela zortzi urtetik honako tarteari begiratuta, bi kasuetan ikusten da 2009 urteko mailaren inguruan dagoela gaur egun erabilera; tartean goranzko joera sumatu bazen ere (2013an).

Helduen taldeari dagokionez, etengabeko goranzko joeran dago euskararen erabilera. 2001etik 7 puntuko igoera jaso da eta 2009tik 5 puntukoa. Neurri handi batean euskarazko eskola sistematik pasatako belaunaldiak helduen taldean txertatzen joateari egotzi dakiok hazkunde hau. Nabarmentzekoa da, haurren eta gazteen erabilerak beherakada handia izan duen arrear, helduen gorakada txikiago bat nahikoa dela herriko erabilera datu orokorra egonkor mantentzeko.


Adinekoei dagokionez, gora-beherak ikusi izan dira neurketa batetik bestera; aldakortasun handia azaldu izan du datuak. Hala ere, ohikoena litzateke datu honek beheranzko joera izatea urte batzuetan, belaunaldi erdaldunenez osatuta dagoelako eta egongo dela hurrengo urteetan ere.

8. Haurren presentziaren eragina erabileran

8.1 Haurren presentziaren eragina erabileran


Haurren adin-taldeak paper berezia jokatzen du hizkuntza erabileran; alde batetik, sarritan beste belaunaldiekiko desberdintzen dituen profil linguistikoa dutela. Bestetik, hurrengo belaunaldien joerak aurrerako saiakera egiten dugulako euren ohiturei erreparatu. Eta, azkenik, beste adin-taldean jokaerak askotan desberdinak direlako haurrak parte hartzen duten elkarrizketetan.

17. GRAFIKOA eta TAULA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA, SOLAS-TALDEAREN OSAERAREN ARABERA. URRETXU-ZUMARRAGA, 2017 (EUSKARAZ, %)



	Haurrak bakarrik	Nagusiak bakarrik	Haurrak eta nagusiak, nahasian	Haurra hitz egiten	Nagusia hitz egiten
Euskaraz	20,9	14,9	36,5	37,7	32,9
Gaztelaniaz	75,5	83,8	59,5	58,2	63,6
Beste hizkuntzetan	3,6	1,4	4,0	4,1	3,5
	100	100	100	100	100

Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Urretxu eta Zumarragako hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2017



Datuak aztertuta ikus daiteke joera nagusia zein den: hizkuntza-portaerak aldatu egiten dira solas-taldearen osaeraren arabera. Zehazki, haurrak eta beste aldin-taldeetakoak (nagusiak) elkarrekin daudenean ematen da euskararen erabilera altuena (%36,5). Nagusiak (gazteak, helduak edo/eta adinekoak) beraien artean dituzten elkarrizketetan, euskararen erabilera hurrekin ematen denaren erdia baino txikiagoa da (%14,9). Baina, horrez gain, hurrez soilik osatutako taldeetan euskararen erabilera %20,9koa dela ikus daiteke.

Haurrak eta nagusiak nahasian ari diren elkarrizketei dagokienez, hurrek hitza dutenean altuagoa da euskararen erabilera; baina nagusiak hitz egiten ari direnean ere, soberan gainditzen dira nagusien arteko elkarrizketen erabilera maila eta baita herriko batezbesteko erabilera-maila ere.

Azken finean, nagusi-haur horretarako euskara erabiltzea ohitura bezala beste edozein taldetan baina gehiago finkatuta dagoela ikusten da. Nagusiek euren ohiko jarduna aldatzen dute, seguruenik hurrei euskara erabiltzea eragiteko borondate batez. Baina nagusiek solaskideen arabera hizkuntza-hautua aldatzen duten bezalaxe aldatzen duten hurrek ere. Nagusiekiko harremanean euskara gehiago erabiltzeko joera bat ikusten den arren, berdinen arteko harremanetan oso behera egiten du joera honek. Honetan bai, ikusten da nagusiek hurrengan duten eragina.



9. Datu nagusien laburpena

Atal honetan, Urretxu eta Zumarragako hizkuntzen erabileraren kale-neurketan jasotako **emaitza nagusiak** laburbilduko ditugu.

- Klean entzundako bost elkarrizketatik bat da euskaraz (%22,3) eta hiru laurden, berriz, gaztelaniaz (%75,2). Beste hizkuntza batzuetan erabilera %2,5ekoa izan da.
- 2001-2017 epealdian euskararen erabilera-maila nahiko egonkor egon da (16 urteko bilakaeran 0,4 puntuko jeitsieratxoak ikusi da). Neurketa batetik bestera gora-behera txikiago egon izan dira, baina ez da goranzko edo beheranzko joera garbi bat agertu bilakaeran.
- Emakumezkoek gizonezkoek baino zertxobait gehiago hitz egiten dute euskaraz: gizonezkoen erabilera %21,1ekoa izan da eta emakumezkoena %23,3koa.
- Haurrak (2-14 urte bitartekoak) dira euskara gehien erabiltzen dutenak (%29,5). Euskara gutxien erabiltzen dutenak, berriz, adinekoak %13,1 elkarrizketa izan baitira euskaraz. Gazteen erabilera %17,9koa izan da eta helduena %22,3koa.
- Haurrak bakarrik (nagusirik gabe) daudenean %20,9 da euskarazko erabilera. Nagusiak euren artean (haurrik gabe) ari direnean, %14,9ean darabilte euskara. Haurrek eta helduek osatutako taldeetan, berriz, %36,5era igotzen da erabilera.
- Hurrez eta nagusiez osatutako taldeetan, haurra hitz egiten ari bada erabilera altuagoa da (%37,7), nagusia hitz egiten ari denean baino (%32,9).